

S

Izaki beldugarriek modu bertsuan ikaritzen gaituzte. Baraualdiak egiteko arrazoiak izaten ditugun bezala, zenbait festatan jaki gozo jakin batzuekin ospatzeko zioak ere baditugu. Ondo dakigu, oraindik, zori txarra uxatzeko eta zori ona erakartzeko zer egin behar den.

i

Usadio zaharren eta erlijio berrien nahasmena, patuarekiko izua, nekazaritzaren garrantzia, iragana zein etorkizunaren jakin-mina eta abar dira gure **usteak** bilbatzen dizkigutenak. Modu batera edo bestera gauzatuko dira, baina, azken finean, munduko herri guztietan **errietoak** eta **sineskeriak** izaten ditugu, bizitza hobeto bizi ahal izateko.

n




Gryla Islandiako izaki beldugarri bat da. Umeak harrapatuta egosi egiten ditu lapiko batean. Haren hamahiru seme-alabak Gabonetako iratxoak ditugu; horietako batek, **Gabonetako katua** deritzenak, garai horretan gaizki portatu edota arropa berririk estrenatu ez duten umeak harrapatzen ditu. Horretarako zelatan ibiltzen da nonahi.

e

- Zein dira ezagutzen dituzun beste ume-harrapatzaile batzuk?
- Eta beste izaki beldugarri batzuk?
- Zer dakizu Ingumari buruz?

Zurean zer egiten da




s

Scotlandeko umeek hortz bat galtzen dutenean, "**Hortzen maitagarria**" bisitan etortzen zaie lo dauden bitartean. Horrek esneko hortza hartu eta txanpon bat utziko du jasotakoaren truke. Bildutako hortz guztiekin gaztelu bat eraiki ohi du, baina horretarako hortz garbiak eta osasuntsuak behar dituela diote gurasoek.

k

Zer deritzozu zuk?



San Valentine eguna beste kontu bat da. Jai honen jatorria herri anglosaxoietan dugu, nahiz eta gaur egun beste herri batzuetan ere zabaldua dagoen. Otsailaren 14rako txartel anonimoak bidaltzen zizkioten elkarri; "Valentine" izeneko txartel horietan amodioa sinbolizatzen zuten bihotzak ageri ziren marraztuta.

Egun, askok diote salerosketek bultzatutzako jai dela, Halloweenen antzera, merkataritzaren menera ekarritako zer bait.

e

r


Zenbait data jakinetan, egun edo bolada horiei dagozkien jaki bereziak jateko ohitura dugu.

Horrela, Frantzian, **la galette de rois** izaten dute Urtarrilaren 6an. Eta zuenean?

Ezagutzen al duzu lotura duten beste jai eta jakirik?

i

a



Bila ezazu tarta horren jatorria, eta harritu egingo zara.

k

<http://mensual.prensa.com/mensual/contenido/2003/01/08/hoy/revista/840284.html>



Nork ekartzen dizkie umeei **Gabonetako opariak?**

Norwegian, esate baterako, antzinako etxaldeetako babesleak, **Nissen** izena duenak.

Islandiako **Santa Clausek** gaizki portatu direnei patata zaharrak besterik ez die ekartzen.

- Haez gain, zein ezagutzen dituzu?
- Zein da horien jatorria?

Baraualdiak edota zenbait jakiren gaineko debekua ere gai komuna dugu hainbat erlijiotan. Bilatu horri buruzko informazioa gelan azaltzeko

Urtaroen aldaketa aitzakia izaten dugu festak ospatzeko.

Malenitsa astea **Ukrainiako** jai garrantzitsu bat da. Egun horietan esne-krema, arrain edo kabiarez betetako **pancakes** (talo antzekoak) jaten dituzte. Gozozaleek, berriz gurinez, azukrez eta eztiz betetakoak aukeratuko dituzte. Gaez, suak piztuta kantuketan eta dantzan diharduten bitartean, lastozko txorimaloak erretzeko ohitura dute.

Bestalde, **Bulgariako kukeri**-en jaiaren gizonezkoek maskara beldurgarritz jantzita dantza egiten dute sutondoan eta, **Hungaryako Mohacs** deritzon horretan, neguaren sinboloa den lastozko panpina erretzen dute.


Hau guztia neguari agur esateko!

Zergatik ote?

Antzeko jairik ezagutzen al duzu?

Eta gurean noiz ospatzen dugu urtaro baten hasiera?

Zein da ospakizun horren jatorria?



Mundu arrazionalista batean bizi arren, **kutunak** erabiltzen ditugu geure burua babesteko eta zori ona izateko.

- Zer deritzozu honi?
- Ohitura hori oso zabaldua al dago zure inguruan?

Nahi izanez gero, **Errumanian** bezala egin zenezake: bi borla ehundu, bata zuria eta bestea gorria, eta lagunei oparitu. Horrela, amodioa eta osasuna eskainiko diezu, **martxoko kutuna** emateaz batera.

Maite nau? Ez nau maite? Bada metodo «klasiko» bat galdera horri erantzuteko. Lore bat besterik ez duzu behar. Baina amorantea zein izango den jakiteko lan handiagoa egin behar omen da eslovakiarren ustez. Jakin nahi?

<http://www.european-schoolprojects.net/festivals/Slovakia/advent.htm>

Badakizu! Atzamarrak gurutzatu!

Euskal usadioa ezagutzeko JOSE MIGEL BARANDIARANen lana ezinbestekoa da.

Eskuratu eta aztertu, euskal sineskerien zerrenda bat egiteko!

